

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko web orriaren diseinu berria

2007/07/04

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak (GEP) bere web orri berria atara du url helbide honekin: <http://www.mondragon.edu/eps>

Diseinu aldetik Mondragon Unibertsitateko web gunerekin bat egiten du (<http://www.mondragon.edu>) eta horretan dago hain zuzen ere orri honen interes puntuetako bat.

Gogoan izan dezagun, berriki, web guneen erabilgarritasunean espezializatua den Usalo web orriak, Mondragon Unibertsitateko web orria espainiar Estatuan lau onenen artean kokatu duela.

Web orri berri horretan eskaintzen diren edukiak hainbat dira eta Fakultateko ikasleei nahiz langileei begirakoak. Aldi berean unibertsitate ikasketak zein Unibertsitatetan hasi edo jarraitu nahi dituzten erabakitzeko unean daudenentzat ere zuzenduta dago.

Web orri hau egiten honako hauek hartu dute parte: CodeSyntax, proiektu digitalen garapenean espezializatutako enpresa gipuzkoarrak, eta Vocento Mediatrader konpainiak, estatu mailan web edukietan liderra denak.

